


DIRU-SARRERAK

Gure enpresaren diru-sarrera nagusia bezeroek harpidetzagatik ordainduko dutena izango da, 3,99€ hain zuzen ere. Aplikazioa jaisten duen pertsona orok prezio hori ordaindu beharko du gailua erabili eta dituen baliabide guztiak aprobetxatu ahal izateko. Hala ere, harpidetza ez da izango gure diru-sarrera bakarra, izan ere, arropa marka ezberdinei egiten diegun publizitateari esker ere lortzen lortuko baitugu diru kantitate bat hilabetero. Babesten dugun marka bakoitzeko 600€ irabaziko ditugu.



Gure ordainketa mota ordainketa bakarrekoa izango da, hau da, bezeroek aplikazioa jaisten duten momentuan soilik ordaintzen dute. Hiru aukera desberdin egongo dira ordaintzeko momentuan: Google Play-eko txartel baten bidez (normalean 5 eta 15€ ingurukoak), PayPal bidez edota bankuko txartelaren bidez.

Prezioei dagokionez, izango ditugun diru-sarrerak erabiltzaile batek aplikazioa jeisten duen bakoitzeko izango da. Hasiera batean behintzat ez dugu aldatuko, hau da, prezio finkoa izango da, eta berdin mantenduko dugu. Aplikazioak izango duen bilakaeraren arabera ordea, diru sarreak aldatu egin daitezke, hau da, prezioak igo edo jaitsi egin daitezke aplikazioaren arrakastaren arabera. Demagun diru-sarrerak esperotakoak baino txikiagoak direla, kasu horretan, prezioak igo beharko genituzke irabaziak izateko.

Hasieran inbertsio bat egin beharko dugu gure enpresa martxan jartzeko. Horretarako, materiala lortu beharko dugu eta aukeratutakoa hurrengoa izango da: alde batetik, Medion markako portatil bi, bakoitza 400€tan, guztira 800€ izango direlarik. Bestalde eskaneatzeko eta kopiak egiteko aukera emango digun inprimagailua bat 179€tan.

Inbertsio inmaterialei dagokionez Software batean inbertituko dugu, gure proiekturako funtsezko elementua izango baita. Gure beharretara egokituko dadin, Donostiako Cyber Surgery enpsarekin jarriko gara kontaktuan, Software guztiz pertsonalizatu bat lortzeko.

